

ARAUDIA

Beste urte batez, La Peluso Cycling Taldeak antolatuko du Bizikletaren Eguna. Hori dela eta, guregan jarritako konfiantza eskertu eta, bidez batez, bete beharreko gutxieneko arauak, ekitaldiaren kronograma eta hainbat gomendio jakinarazi nahi dizkiegu hartan parte hartuko dutenei.

...

- I. Ekainaren 22an, larunbatarekin, stand bat jarriko dugu Antoniutti parkean aurrez aurreko inskripzioak egiteko. Orduategia honako hau izango da: 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Egun horretan, korrikalarien poltsa eta kamiseta banatuko ditugu. Gaizki-ulerturik egon ez dadin, marka bat jarriko da oparia jaso dutenen dortsalean.
- II. Ekainaren 23an, igandearekin, 9:00etatik 10:00etara, beste txanda bat irekiko da aurrez aurreko inskripzioak egiteko. **Lasterketa 10:30ean hasiko da**, Antoniutti parkean. Ibilbidea 16 km ingurukoa izango da, eta irteeraren leku berean amaituko da, 13:15ak inguruan. Korrikalarien poltsa helmugara iristean emango da. Parte-hartzaileak dagokion standera joan beharko du poltsa jasotzera, 13:15etik 16:00ak arte.
- III. Stand bat jarriko da hamarretakoarekin, Mendillorriko ur-biltegian. Espero da parte-hartzaileak 11:00etatik 11:45ra bitartean helmugara iristea.
- IV. Sariak Antoniutti parkean bertan banatuko dira, 14:00etan.
- V. Ibilbide osoan La Villavesako autobus batek lagunduko digu, erratz autoaren funtzioak betez.
- VI. Izena ematen duten guztiak zuzenean sartuko dira zozketa batean, lasterketa bukaeran egingo dena. Parte-hartzaileen artean honako hauek zozketatuko dira: Conor bizikleta bat, Lacturale markako produktu batzuk, Moviestar txirringularitza-ekipamendua eta Sarasa markako produktu-loteak.
- VII. Honako jarduera hauek egingo dira: jolasak birtziklatutako materialekin eta bizikleta berezien erakusketa eta erabiltzeko aukera.
- VIII. Bizikletaren Egunaren xedea zikloturismoa sustatzea da eta bereziki familiei dago zuzenduta. Jarduera horiek erregulatzen dituzten arauak Zikloturismoari eta Txirringularitzari buruzko Araudiaren 9. artikuluan jasotzen dira, eta eragina dute Espainiako Txirringularitza Errege Federazioko kirolari guztiengan. Hori guztia lehiakortasuna alde batera utzi eta kirol hau aisia-, turismo- edo kultura-helburuak dituen ariketa fisikotzat hartzen duen txirringularitzako espezialitate baten barruan. Proba azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretuaren II. eranskineko 15. artikulua eta hurrengoaren xedapenen mende egongo da (1428/2003 Errege Dekretua, Zirkulazioko Erregelamendu Orokorra onartzen duena, martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua aplikatu eta garatzeko).

- IX. Parte hartzeko inskripzioa 5 eurokoa da, online nahiz Antoniutti parkean bertan egiten dutenentzat. Izena online emateko epea maiatzaren 1ean hasi eta ekainaren 21ean amaituko da, biak barne. Dortsala jasotzeko, NANA aurkeztu behar da (QR kodea irakurtzeko).
- X. Inskripzioak behin betikotzat jotzen dira eta, beraz, ezin bada parte hartu, ez da inskripzioaren dirua itzuliko. Inskripzioak norberarenak eta besterenezinak dira; beraz, debekatuta dago izena eman ez duen beste inork erabiltzea. Beraz, debeku da pertsona batek beste baten ordeztu parte hartzea.
- XI. Ez ahaztu derrigorrezkoa dela kaskoa jantzita eramatea.
- XII. Martxan jende askok parte hartzen duenez, ohikoa izaten da elkarren artean tratatzea eta baita erortzea ere. Mesedez, jaitsi errespetuz, sigi-saga egin gabe eta gehiegizko abiadura hartu gabe.
- XIII. Gogoratu bizikletaz zoazela debekatuta dagoela telefono mugikorra erabiltzea, bai eta soinu-erreproduktoreei konektatutako entzungailuak erabiltzea ere. Ulertzen dugu Bizikletaren Egunean izandako esperientzia partekatu nahi izatea; beraz, aipatutako gailuak erabili nahi badituzu, bazterbidean gelditu, gainerako parte-hartzaileak eta oinezkoak oztopatu gabe, eta orduan bakarrik, erabili itzazu.
- XIV. Antolakuntzak erantzukizun zibileko aseguru bat du horrelako ekitaldietarako. Ibilbidean anbulantzia eta osasun-laguntza egongo dira, behar izanez gero. Udaltzaingoak une oro kontrolatuko du martxa.
- XV. Araudi hau onartzeak berarekin dakar antolatzaileei baimena ematea lasterketa grabatzeko, osorik edo zati bat. Parte-hartzaileek baimena ematen dute beren irudia erabiltzeko, formatu guztietan (irratia, prentsa, bideoa, argazkia, DVDa, Internet, kartelak, komunikabideak, etab.), proba sustatu eta zabaltzeko helburuarekin. Halaber, antolakuntzak egoki iritzitako merkataritza- eta publizitate-ustiapenari dagozkion eskubide guztiak haren esku lagatzen ditu, inolako konpentsazio ekonomikorik jasotzeko eskubiderik gabe.
- XVI. Antolatzaileek eskubidea dute eguneko agenda bertan behera uzteko, arrazoi meteorologikoengatik edo ekitaldiarekin zerikusirik ez duten arrazoiak direla medio.